


# Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna



## Material didaktikoa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

# ESATARI TREBEAK IZATEKO PRAKTIKATZEN

## Irrati kronikak grabatzen



### Hizkuntza Komunikaziorako Gaitasuna

2.DBH

## ESATARI TREBEAK IZATEKO PRAKTIKATZEN Irrati kronikak grabatzen

(sekuentziaren jatorria: [http://www.berrikuntza.net/programas/materiales/materiales\\_arch/adj535.pdf](http://www.berrikuntza.net/programas/materiales/materiales_arch/adj535.pdf))

**Jakintzagaiak: Euskara, hizkuntzak**

**Gaia: Mintzamina. Intonazio eta ahoskera egokiak**

**Maila: 2. DBH**

**Saio kopurua: 6-7 saio**

### Proposamenaren testuingurua:

Ikasleekin ahozotasuna lantzea ezinbesteko egitekoa dugu gaur egungo eskolan. Sekuentzia labur honetan dikzioari eta ahoskatze zuzen eta egokiari lotutako jarduerak proposatzen dira ikasleei erakargarria izan dakiekeen zeregin baten barruan: berek hautatuko dituzten kronikak grabatuko dituzte institutuko edo herriko irratirako, esatari onak kontuan izan behar dituen ezaugarriei erreparatu ondoren.

### Landuko diren oinarrizko gaitasunak:

- Hizkuntza Komunikaziorako gaitasuna (2, 3, 4, 5, 6, 7, 8. jarduerak)
- Teknologia digitala eta IKTak erabiltzeko gaitasuna (1, 5, 8. jarduerak)
- Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna (1, 2, 3, 9. jarduerak)
- Ikasten ikasteko gaitasuna (1, 2, 3, 9. jarduerak)
- Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna (1, 2, 3, 6, 7, 8, 9. jarduerak)

### Helburu didaktikoak:

- Elkarreaginaren bidez erabaki bateratuetara iristea
- Elkarriketetan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea
- Ondo irakurtzea eta ahoskatzea
- Dikzioa hobetzea
- Intonazio egokiaren garrantziaz konturatzea
- Kronikak irakurtzea, entzutea eta ulertzea
- Irratirako emanaldia grabatzea
- Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzea

### Edukiak:

- Esatari onaren ezaugarriak
- Dikzioa hobetzeko prozedurak
- Ahozko testuen intonazioa
- Testuen egokitzapena ahozko jarduerarako.
- Komunikazio-harremanetan, lankidetzarako eta errespetuzko jarrera
- Ahoskera eta intonazio egokia erabiliz adierazpenak egiteko interesa
- Elkarriketetan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa

### Jardueren sekuentzia:

a) *Planifikatzea*

1. jarduera: **Zer egingo dugu?** Motibazioa eta negoziazio jarduera.

b) *Gauzatzea*

2. jarduera. **Esatari onaren ezaugarriak.** Jendaurrean aritzean kontuan hartu behar diren arauak denon artean erabakitzea.

3. jarduera. **Dikzioa hobetzeko ariketak.**

4. jarduera. **Intonazio eta ahoskera egokia ahozko testuetan.**

5. jarduera. **Testuak ahozko jardunerako antolatzen.**

6. jarduera. **Kronika hautatu eta saioa planifikatzen.** Kronika idatziak irakurri eta hautatzea eta grabaziorako planifikazioa zehaztea.

7. jarduera. **Praktikatzen.** Grabatu aurretik talde txikian praktikatu, prozedura orriaren arabera.

c) *Erabiltzea*

8. jarduera. **Entzuleentzako grabatzen.**

9. jarduera: **Egindakoa entzun eta ebaluatzen.** Talde handian azken ekoizpenak aztertzea.

### Ebaluazioa: Adierazleak:

- Ea nahiko ongi aplikatzen dituzten gizartean komunikatzeko arauak.
- Ea elkarreaginaren bidez erabaki bateratuetara iritsi diren
- Ea elkarreagina norberaren eta besteen sentimenduen kontzientzia hartzeko eta jarrera erregulatzeko baliabideak aintzat hartzen duten
- Ea kronikak hautatu, irakurri eta ulertu dituzten
- Ea ondo ahoskatzen duten, dikzio eta intonazio egokiaz
- Ea ondo ahoskatzearen eta dikzioaren eta Intonazio egokiaren garrantziaz ohartu diren
- Ea irratirako emanaldia grabatu duten
- Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak erabili dituzten
- Ea elkarrizketetan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izan duten.
- Ea beren eta besteen testuetako akats nagusiak identifikatu eta zuzentzen dituzten, jarraibideak erabilia.
- Ea onartzen duten akatsak egitea ikas prozesuaren parte dela.

### Tresnak:

Sekuentzian daudenak:

Prozesuaren ebaluazioa: Behaketa txantiloia (5. jarduera)

Prozesuaren ebaluazioa: koebaluazio txantiloia (2, 3, 4. jarduerak)

Prozesuaren ebaluazioa: Prozedura orriak (4, 7, 5. jarduerak)

Amaierako ebaluazioa: 9. jarduera

Irakasleak erabil ditzakeen beste batzuk: Adierazleen zerrenda, behaketa orri gisa.

## ESATARI TREBEAK IZATEKO PRAKTIKATZEN

### Irrati kronikak grabatzen



Nola lortuko dugu esatari trebeak izatea?

Irratiko entzuleek ez dute izaten kronika, albistea, kontakizuna... behin eta berriz irakurtzeko aukerarik; hori dela-eta, ahozko kontaketa argi azaldu behar zaie eta kronikak kontatzean, esaterako, kontakizunak duen xarma hori transmititu ere.

Sekuentzia honetan institutuko edo herriko irratirako IRRATI-KRONIKAK grabatuko dituzue.

XXI. mendea informazioaren eta komunikazioaren mendea da. Irratia gaur egun ere, nahiz eta komunikabide hain modernoak ez izan, bizi-bizirik dagoen komunikabidea da eta entzule ugari ditu. Baina entzuleei informazioa eta datuak jakinarazteko, istorioak kontatzeko eta azalpenak emateko ondo ahoskatu eta ondo kontatzen jakin behar da; izan ere, entzuleek ez dute esataria ikusten eta ahotsak, intonazioak, etenaldiek... berebiziko garrantzia dute. Kontatu behar denari sinesgarritasuna emateko bai eta emozioa ere, hizkuntza trebetasunez erabiltzeak garrantzi handia du. Hizkuntza mintzatuaren bidez, soil-soilik, beste laguntzarik gabe, irudirik gabe, transmititu egingo dira istorioak, emozioak, bizipenak.

### 1. jarduera. Zer egingo dugu? Zertarako? Kontratua egingo dugu!

Entzun birritan ikasbil.net-etik ateratako irradi-nobela hau.

#### ETSIAK ETXE BARRUAN



[Entzuteko sakatu hemen](#)

**Hauxe da transkripzioa** (atala. Osorik irakurtzeko  
[:http://www.ikasbil.net/idadziak/11\\_070222\\_1053.PDF](http://www.ikasbil.net/idadziak/11_070222_1053.PDF))

Soldadu bat zen, ez zegoen dudarik. Eta arma bat zeukan guri begira. Etxe barruan militar gehiago zeudela konturatu nintzenean eta bertara sartzea ezinezkoa izango zitzaigula jakitean, konortea galdu eta erabat zorabiatu lurrera erori nintzen.

HELENA: Ama! Ama, zutitu zaitez, mesedez! Ama!

SOLDADUA 1: Sartu etxera, azkar!

HELENA: Nire ama ez dago ondo, ez al duzu ikusten?

SOLDADUA 1: Iskanbilarik ez dugu nahi, entzun? Heldu beste besotik eta goazen barrura, behingoz!

Eta hala gertatu zen. Bien artean etxera sartu ninduten, Helenak larritasun bizia sentitzen zuela. Nola gogora dezaket hau guztia? Ba momentu hartan bat-batean konorteratuta nintzelako.

KRISTINA: Ene, zer gertatzen da hemen? Helena, ondo al zaude?

SOLDADU 1: Txintxoak izanda ez duzue larritzeko arrazoirik izango, ulertzen al duzu, andere?

KRISTINA: Ez zaude bakarrik, ezta? Soldadu gehiago zarete, pausoak entzun ditzaket goiko pisuan!

HELENA: Lasaitu zaitez, ama.

SOLDADU 1: Dirudienez ez duzu hitzik ulertu. Ez dugu tentsiorik nahi. Diru bila gabiltza, eta geroz eta erraztasun handiagoa jarri, lehenago bukatuko dugu; beraz, lasaitu zaitezte eta ez ezazue (etzazue) trabarik

egin, ados?

KRISTINA: Oker zabiltzate, etxe honetan ez dago dirurik.

SOLDADU 1: Benetan ziri ustel hori sinetsi behar dugula uste al duzu?

Soldaduak momentu hartan egongelaren alde batera egin zuen, lehenengo eta bigarren pisuak komunikatzen zituzten eskaileretaraino.

SOLDADU 1: (urrunetik) Soldadu! Jaitsi, mesedez! Bisitan etorri zaizkigu bi anderetxo!

SOLDADU 2: (urrunetik) Oraintxe noa!

KRISTINA: (xuxurlatuz) Helena, bidaiarako aurreratu duzun diru-poltsa hori hemen al dago? Etxe barruan?

HELENA: (xuxurlatuz) Bai, baina ez dute inoiz aurkituko.

KRISTINA: Eta non dago, esaidazu.

HELENA: Ikusten al duzu pianoa?

KRISTINA: Piano barruan? Ideia zoragarria da, Helena!...

HELENA: Ama, zu ez al zara egoeraren beldur?

KRISTINA: Beldur? Ez. Ikusiko duzu nola dena ondo aterako den, Helena.

SOLDADU 1: Hauek dira, soldadu. Ama-alabak direla uste dut.

SOLDADU 2: Zuek al zarete etxe honetako jabeak? Hobe duzue hitz egitea. Jabeak zuek zarete, bai ala ez?

SOLDADU 1: Bai, eurak dira, soldadu. Lehenago entzun diet nik.

SOLDADU 2: Eta ba al dakizue zuek dirua non dagoen ezkutatuta etxe honetan?

KRISTINA: Hemen ez dago dirurik. Koadroak, altzariak eta bitxiak eraman ditzakezue, baina ez duzue inola ere dirurik aurkituko, zin dagizut.

SOLDADU 2: Ez dizut sinesten, gaur egun denak dira gerra honen beldur, eta dirua etxe barruan, nonbait, ezkutatzen dute. Zergatik izango zineten zuek salbuespena?

(...)

Istoriaa ikusten ari garela ematen du ezta? Zeren menpe dago irudiak ere transmititzeko gaitasun hori izatea? Nola lortuko dugu esatari trebeak izatea, hau da, jendeari kontatuko, azalduko diogunaren intentzio eta esanahi guztiak helaraztea, irrati-nobela horretan egiten duten legez?

| Zer ikasiko dugu?   | Nolako jarduerak egingo ditugu?   | Nola ebaluatuko dugu lana?  |
|---|---|---|
| <input type="checkbox"/> Gertaerak modu adierazkorrean kontatzen.<br><input type="checkbox"/> Ahozko narrazioen ezaugarriak.<br><input type="checkbox"/> Irrati-kronika taldeka ematen.<br><input type="checkbox"/> Grabazioak egiten . | <input type="checkbox"/> Testuak (idatziak eta ahozkoak) aztertu eta ozenki irakurri.<br><input type="checkbox"/> Testuak ikaskideei kontatu.<br><input type="checkbox"/> Arrazoitutako azalpenak eman ikaskideei<br><input type="checkbox"/> Grabazioak egin<br><input type="checkbox"/> Grabazioak berrikusi eta zuzendu, baita ikaskideenak ere.<br><input type="checkbox"/> Taldeka eztabaidatu, ados jartzeko. | <input type="checkbox"/> Auto-ebaluazioaren bidez.<br><input type="checkbox"/> Ikaskideen ebaluazioaren bidez.<br><input type="checkbox"/> Egingo dugun grabazioaren bidez<br><input type="checkbox"/> Probatxo baten bidez<br><b>JARRERA KONTUAN HARTUZ:</b><br><input type="checkbox"/> Parte-hartze aktiboaren bidez<br><input type="checkbox"/> Talde-lanetan kideak Errespetatuz<br><input type="checkbox"/> ... |

Sekuentzia honetan hauxe egingo dugu:

**KONTRATUA:**

**Ondokoak dira nik eta nire taldekoek sekuentzia honetan egingo ditugunak:**

---



---



---



---



---



---



---



---



---

Kontratu honetan adierazitakoa beteko dudala adierazten dut. Horretarako, sinatu egiten dut nire taldekideekin batera.

Tokia eta data:

Irakaslearen sinadura                      Ikasleen sinadurak:

## 2. jarduera. Esatari onaren ezaugarriak

Esatari on batek nolako ezaugarriak ditu? Zer egin behar du jendaurreko jarduna eraginkorra eta ona izan dadin?

Taldeka bilduko zarete, launaka. Lehendabizi, 'Esatari ona ala kaskarra?' ataleko txarteltxoak moztu eta lauren artean banatuko dituzue. Ondoren, elkarrekin erabakiko duzue esatari on batek izan behar dituen ezaugarriak zein diren eta beheko taulako ataletan txertatu. Era berean, inportantziarik gabeko ezaugarriak, esatari kaskarren ezaugarriak eta zalantzazko ezaugarriak ere txertatuko dituzue. Hitz egin eta eztabaidatu, zuen proposamena taldekide guztien iritzia-aren emaitza izan dadila!

Azkenik, talde handian komentatuko duzue zeintzuk diren hautatu beharko liratekeen ezaugarriak. Ikastalde osoak, irakaslearekin batera, zortzi-hamar ezaugarri hautatu eta behean idatziko dituzue. Horiexek izango dira, hain zuzen, gero zuen jardunean kontuan hartu beharko dituzuenak!

### Esatari ona ala kaskarra ?



|  |  |
|--|--|
| Entzuleen erreakzioez ohartzen da.   | Lelokeriak esaten ditu.  |
| Arbela, gardenkiak, posterrak edo ppt-ak erabiltzen ditu diagrama, irudiak, argazkiak eta abar erakusteko. | Aurkezpena interesgarriagoa egiteko hizkuntza aberatsa erabiltzen du.                            |
| Esaten duena erraz ulertzen da.  | Ideia garrantzitsuak azpimarratzen ditu.   |
| Entzuleak galderak egitera bultzatzen ditu.  | Esaten duen guztia irakurri egiten du; horrela, ez zaio ezer ez ahazten.                         |
| Argi dago entzuleak baino askoz azkarragoa dela.   | Sinesgarria da.  |
| Modu egokian janzten da.   | Esaten duenaren atalen arteko lotura erraz ulertzen da.  |
| Hitzez hitz errepikatzen du testua.  | Argi dago gaiari buruz asko dakiela, ulertzeko zailak diren teknizismo asko erabiltzen ditu eta. |
| Aurkezpenaren amaiera azpimarratzen du.  | Entzuleak errespetatzen ditu.  |
| Entzuleen arreta lortzeko esaldi harrigarri batekin hasten da.   | Ideia nagusia azpimarratzeko pasadizoak eta detaileak erabiltzen ditu.                           |



|   |  |
|---|--|
| <b>“Ezerk axola ez dio”lako jarrera hartzen du.</b>                         | <b>Bizikletan dabilenean, ez du inoiz kaskoa jartzen.</b>                                    |
| <b>Astiro hitz egiten du.</b>   | <b>Entzuleei begiratzen die..</b>  |
| <b>Zalantza bizian dago.</b>  | <b>Irribarre egiten du.</b>  |
| <b>Argi eta ozenki ahoskatzen du.</b>                                       | <b>Guztiek entzuteko, oihukatu egiten du.</b>  |
| <b>Keinu asko egiten ditu.</b>  | <b>Egin duen azalpena entzutea oso atsegina da.</b>  |
| <b>Zenbait ataletan antolatu du bere azalpena.</b>                          | <b>Amaitzean, entzuleei eskerrak ematen dizkie.</b>  |
| <b>Aurrez ezarritako denbora epearen barruan amaitzen du bere azalpena.</b> | <b>Ondorio argi bat ematen du.</b>   |
| <b>Lasaitasunez hitz egiten du.</b>   | <b>Ahopeka hitz egiten du.</b>   |
| <b>Oso serioa eta formala ematen du.</b>                                    | <b>Arin-arin hitz egiten du, primeran daki dena eta.</b>                                     |
| <b>Oso ona da tenisean.</b>   | <b>Hizkuntza egokia erabiltzen du.</b>   |
| <b>Akats gramatikal asko egiten ditu.</b>                                   | <b>Nahiz eta hitzaldia prestatu, oso naturala ematen du; bat- batean egingo balu bezala.</b> |

|   |  |
|---|--|
| <p>ESATARI TREBEA</p>  | <p>ESATARI ESKASA</p>     |
| <p>EZ DU INPORTANTZIARIK</p>  | <p>EZ GARA ADOS JARRI</p>  |

Esatari trebeak, beraz, ondoko ezaugarri hauek izan behar ditu:

| ESATARI ONAREN EZAUGARRIAK |  |
|----------------------------|--|
| 2.                         |  |
| 3.                         |  |
| 4.                         |  |
| 5.                         |  |
| 6.                         |  |
| 7.                         |  |
| 8.                         |  |
| 9.                         |  |
| 10                         |  |

Gure jardunean saiatuko gara horiek guztiak kontuan izaten!!!

### 3. jarduera. Dikzioa hobetzeko ariketak



Zer da dikzioa? Hitzen ahoskera egokia. Aktoreek eta hizlariak ahoskera egokia izan behar dute; horrela, entzuleei helarazi behar dieten mezua argi eta garbi helduko da. Dikzioa hobetzeko, gimnasia-ariketak egin behar dira mihiaz, ahoko gihar hori sendotzeak asko laguntzen baitigu hitzak hobeto ahoskatzen. Ariketak maiztasunez egiteak on

egiten die irrati-telebistako esatariei.

Jarri bikoteka eta ahalegindu honako ariketa hauek egoki egiten, eta markatu ongi edo gaizki egiten dituzuen. Zure bikoteak esango dizu behar den bezala egiten dituzun.

| DIKZIO ARIKETAK   | (IZENA)..... | IZENA..... |
|---|--------------|------------|
| 1. Mihia atera eta gorde, ahalik eta arinen.  |              |            |
| 2. Mihia atera eta gogor eta zorrotz jarri.   |              |            |
| 3. Mihia nasai utzi, hots, bigun eta lasai.   |              |            |
| 4. Mihia ahoaren eskuineko eta ezkerreko aldetik atera.   |              |            |
| 5. Mihia zeharo atera eta, hori egin ondoren, ahoaren mutur batetik bestera higitu, ezpainak zabal-zabalik. |              |            |
| 6. Ezpainak itxita, mihia ateratzen ahalegindu.   |              |            |
| 7. Mihia sudurrerantz eta kokotserantz eraman.  |              |            |
| 8. Boligrafoari mihiaren eta goiko ezpainaren artean oratu.   |              |            |
| 9. Boligrafoari haginekin oratuz, edozein testu ahots goraz irakurri.                                       |              |            |

### 4. jarduera. Intonazio eta ahoskera egokia ahozko testuetan

#### 4.1. ariketa. Intonazioaren garrantzia ahozko testuetan

Binaka jarri eta esan honako hauek zure albokoari:

|                          |                            |                          |
|--------------------------|----------------------------|--------------------------|
| <b>Ongi egingo duzu.</b> | <b>Ongi egingo duzu!!!</b> | <b>Ongi egingo duzu?</b> |
|--------------------------|----------------------------|--------------------------|

Intonazio berarekin esan al dituzue? Zergatik?

Binaka, irakurri honako txantilo honetan dauden adibideak. Gero, bata besteari esango dizkiozue, baina ahalegindu intonazio egokia erabiltzen adibide bakoitzerako.

Amaitzeko, adibide gehiago asmatu edo bilatu hemerotean, bai euskaraz, bai gaztelaniaz.

#### INTONAZIOA ETA PUNTUAZIO-MARKAK

Ahoz komunikatzen garenean, garrantzia ez du bakarrik esaten denak, nola esaten den ere oso garrantzitsua da. Hitz egiten dugunean, beharrezkoa da intonazio egokiz egitea, entzuten digunak mezua ongi uler dezan. Puntuazio ZEINUEK testu idatziari dagokion intonazioa adierazten digute.

**KOMA: Argazkiak, irudiak, hitzak eta sentimenduak bata bestearen atzetik pasatu zaizkit, film batean bezala.** Orokorrean, komak dauden lekuan, intonazio-kurbak gora egiten du.

Adib. \_\_\_\_\_

**PUNTUA: Athletic eta Real Madril. Lehen Mailako klasiko handia.** Intonazio-kurba behera doa.

Adib. \_\_\_\_\_

**BI PUNTUAK: Artikuluak hauxe dio: ezin da ikastetxera etorri edozelan.** Intonazio-kurba esaldiaren araberakoa da.

Ongi egingo duzu. Ongi egingo duzu! Ongi egingo duzu?

Adib. \_\_\_\_\_

**ETEN-PUNTUAK: Kepa, Amaia, Leire... denak zeuden bertan.** Intonazio-kurba mantendu egiten da.

Adib. \_\_\_\_\_

**HARRIDURA-IKURRA: Hau festibala!** Intonazio-kurba hasieran igo egiten da eta gero jaitsi.

Adib. \_\_\_\_\_

**GALDERA-IKURRA: Joango al gara etxera? Zer irrati entzuten duzue?** Intonazio-kurbak gora edo behera egin dezake.

Adib. \_\_\_\_\_



#### 4.2. ariketa: Ahoskatzerakoan euskaraz egiten diren aldaketa fonetikoak

Ahoskera eta idazkera bat al datoz? Euskaraz hitz egitean, hainbat hitz elkartu egiten ditugu, beste era batera ahoskatuz.

Taldean, aztertu nola ahoskatuko zenituzketen honako esapide hauek eta zein silaba indartzen duzuen gehiago:

| <u>IDATZI</u> | <u>AHOSKATU</u> | <u>IDATZI</u> | <u>AHOSKATU</u> |
|---------------|-----------------|---------------|-----------------|
| ez zion       |                 | izan zen      |                 |
| zeuk dakizu   |                 | ez badu       |                 |
| ez dago       |                 | ez gara       |                 |
| hil zen       |                 | ez dut uste   |                 |
| ez nekien     |                 | ehun eta bi   |                 |
| etor zaitez   |                 |               |                 |
| ez luke       |                 |               |                 |

Hainbat erantzun egon daitezke, baina kontuan izan erantzunek koherenteak eta naturalak izan behar dutela beti inguruko euskararen aldaerarekin. Orain gehitu beste batzuk.

### 4.3. ariketa. Irakurketa espresiboa

Hemen dituzuen kronikak agian oso literarioak dira, baina erabilgarri izango zaizkizue irakurriko duzuen kronikari eman behar diozuen bizitasun-puntua praktikatzeko.

**2006ko martiaren 13a, astelehena**

#### ***Emozionatzeko ez da urrutiegi apuntatu behar***


Urteak neramatzan Anari kontzertuan ikusi barik, "Anari" (1997) lehenengo disko hura atera zuenetik: Kafe Antzokian eta Algortan ikusi nuen orduan.

Ostiralean ikusi nuen Anari kontzertuan, 8 edo 9 urte pasatu eta gero. Elorrioko Arriola Antzokian izan zen: ez ahazteko moduko kontzertua. Ahotsa apur bat kraskatuta zuela hasi zen kantuan, eta kontzertua amaitzerako erabat zeukan ahotsa hautsita. Une batzuetan sufritzen ibiliko zela pentsatu nuen, eta ez dakit sufritu zuen edo ez, baina entzulearentzat zoragarria izan zen, kantaria amildegiaren ertzean ibili baitzen denbora guztian, arriskatzen, bere kantuen

bertsioak egiten, hitzak agoniaraino luzatzen, oihu egiten eta esaten ari zen guztia bizitzen. Bai, dudarik gabe, asko arriskatu zuen kontzertu osoan. Eta ondo irten zitzaion, itzel. "Inoizko erotikoen", esan zidan Peru Magdalena lagunak, kontzertua amaitzean.

Eta halaxe izan zen: kontzertu sentitua, arriskutsua, barru-barrukoa, *bestiala*. Arriola aretoan 200 lagun inguru bildu ginen, kanpoan "eguraldi txarria", Anarik esan zuen moduan. Disko berriko kantu guztiak jo zituen, eta aurreko bi diskoetako beste 7 edo 8 abesti. Soinu aldetik arazo txiki batzuk egon ziren, eta kontzertuaren hasieran iruditu zitzaidan soinua apur bat saturatuta zegoela, baina huskeriak baino ez ziren izan.

Anarik berba gutxi egin zuen kontzertuan (taldekideak ere ez zituen aurkeztu): laugarren abestiaren ostean, kontzertuaren erdialdean, eta amaieran baino ez zuen berba egin, baina, horren ordainetan, kontzertuari erritmo bizi-bizia eman zion, ia tarterik ere utzi gabe abestien



artean. Alde batetik, faltan bota nituen hitz batzuk, azalpenen bat, biluztasunen bat (diskoa biluztasun nahikoa bada ere), baina, bestetik, eskertzekoa izan zen musika eta talentu zurrunbilo hura. Izan ere, talde osoaren sendotasun elektrikoaren barruan zein bakarka eta zerraren soinupean kantari, Anari *marabilla* bat da. Anari, gitarra elektrikoak zintziliek duela, dagoen piztiarik erakargarriena da.

Eta martxoaren 30ean, Bilboko Kafe Antzokian. Ez harritu han ikusten banauzue berriro, emozionatzeko prest, urrutiegi apuntatu beharrean barru-barrura apuntatzen duen Anariri begira.

<http://eibar.org/blogak/gabiria/archive/2006/03/13/236> Julen Gabiria (Moldatua)

### Komunean gertatutako hilketak saihestezin baten kronika

**Urteen poderioz** arrakalatutako hormaren zirrikitutik irten zen, **gauaren babesaz** baliatuz. **Bere oskol beltzaren distira nabarmenduta** ageri zen leihotik sartzen zen ilargiaren argiaz eta zomorroa noraezean ibili zen denbora zehaztugabea, haizearen norabidea ezin dezifratuz,

ezin ulertuz toki itxian airearen kondentsazioaren zentsua.

Estolderia paradisua atzean utziz eta jakin-minak bultzatuta hartu zuen bizilekua lagatzeko erabakia.

Kanpoan zer aurkituko zuen zain. Imajinatutako kirasdun zoldazko kalea ezerezean gelditu zen eta zurtuta, labezomorroak, faltan bota zituen kakaz betetako hodiak. Desinfektatzailearen eraginez atrofiatutako usaimenak ez zion mesederik egin eta itzulera ezinezkoa egin zitzaion. Itolarria eta zorabioa sentitu zituen jarraian eta halako zoramen ulertezin bat jabetu zen hartaz. Milaka bira eman zizkion gelari, eta bat-batean, argi itsugarri bat piztu zen.

Gizonak segituan pausatu zuen begirada berarengan eta mamorroak sortzen zion higuina zertan ezkutatzeko beharrianik gabe hurbildu zen. Zapaltze mortal batez akabatu zuen. Erraiak komuneko zoruan zehar geratu ziren sakabanatuta. Bere zereginak amaitu eta gizona lasai asko oheratu zen berriz ere, argia itzaliz eta gertatutakoa ametsa bailitzan. Zeharo ezdeusa. Momentu hartan hil zen gizakiaren ontasun apurra, inoiz haren jabe izan bada behintzat.

Labezomorroaren kuriositatea asinatzeagatik gure arima maltzurkeriaz pozonduta egotera kondenatuta dago geroztik. Xehetasun hutsalak baztertzeagatik. Sozialki horrela onartu delako begi bistan min egiten duena suntsitzeagatik.

ANE ARALUZEA

<http://7mirariak.blogspot.com/2006/12/komunean-gertatutako-hilketa.html>



Bikoteka, testu bana hautatu. Aldaketa fonetikoak eta intonazioa adierazi testuan bertan. Azkenik, testua irakurri kideari. Gero, ikasgelakoan aurrean.

Horretarako, TESTU BAT MODU ADIERAZKORREAN IRAKURTZEKO PROZEDURA jarraitu. Gero, entzun nola irakurtzen duen kideak bere testua.

Irakurketa-jardunak grabatzen badituzue, haiek entzutean zuzendu beharrekoak zuzendu ahal izango dituzue. Horrela, azken ekoizpena hobeto egin ahal izango duzue!

### TESTU BAT MODU ADIERAZKORREAN IRAKURTZEKO PROZEDURA

- Hasteko, testua behin eta berriz irakurri isilean, haren esanahiaz zein egoeraz ondo jabetu arte.
- Istorioa argi eta garbi irakurri eta kontatu behar da, hitz bakoitzari dagokion ahoskera emanaz. Beraz, kontuz! Ez hitz egin ahopeka.
- Izan kontuan testu bat ahots goran irakurtzean hitzak ez direla idatzita dauden bezala ahoskatu behar, hainbat hitz elkartu egiten dira, eta elkarketa horrek aldaketa fonetikoak egitea dakar.
- Irakurketaren erritmoa egokia izan behar da. Hasteko, egin itzazu proba batzuk zure kabuz, eta gero zure taldeko kideak izan daitezke entzule.
- Ez da oihuka irakurri behar ezta ahopeka ere. Garrantzitsua da ahotsa sekula ez behartzea. Ahotsaren intentsitatea narrazioaren arabera aldatu beharra dago.
- Intonazioari dagokionez, testu idatzian dauden puntuazio-markei erreparatu behar zaie lehenik; izan ere, haiek adierazten dute noiz esan zerbait galdera edo harridura moduan, noiz egin etenak, etab.
- Baina marka horiez gain bada kontuan hartu beharreko beste alderdi bat; intonazioaren bidez hauxe adierazi behar da: testuaren tonua (serioa, ironikoa...). Aukeratutako testua era neutroan irakurri zure ikaskideari; ondoren, dagokion tonua aukeratu: tragikoa, barregarria

### IRAKURKETARAKO EBALUAZIO-ORRIA

|   | BAI | EZ |
|---|-----|----|
| Hitzak ondo ahoskatzen ditu   |     |    |
| Ez du hitz ulertezinik esaten, ez du hitz egiten ahopeka inork ez ulertzeko moduan. |     |    |
| Erritmo egokia, aldatu egiten du behar denean                                       |     |    |
| Bolumen egokia, aldatu egiten du behar denean                                       |     |    |
| Puntuazio-markak jarraitzen ditu  |     |    |
| Intonazioa egokia, aldatu egiten du behar duenean                                   |     |    |
| Aldaketa fonetikoak egiten ditu behar denean  |     |    |

Zelan irakurri duzue? Lasai, oraindik hobetzeko moduan zaudete eta.

## 5. jarduera. Testuak ahozko jardunerako egituratzen

Euskaraz, normalean, erdaraz ez bezala ordenatu ohi ditugu perpausaren osagaiak. Izan ere, euskaraz ordenarik ohikoena **Subjektua-Osagarria- Aditza** dugu; hau da, aditza perpausaren amaieran jartzen da.

Hala ere, perpausaren hitzak era askotara ordena ditzakegu informazioari tratamendu ezberdina ematen badiogu, hau da, informazioak duen garrantziaren arabera.



### EUSKARA IDATZIA

Esan genezake euskaraz perpausaren osagaiak, normalean, duten edo eman nahi zaien garrantziaren arabera ordenatzen direla; osagai garrantzitsuena (galdegaia) aditzaren aurrean jartzen da. Hala ere, mintzatzean, oro har, askatasun handixeagoa dago hitzak ordenatzerakoan.



### EUSKARA MINTZATUA

Idatzian ez bezala, intonazioaren bidez azpimarra daiteke galdegaia, eta normalean, azken esaten dena hobeto gogoratuko dugulako atzeratu egiten dugu galdegaia.

Alabaina, perpaus barneko hitzak era askotara ordena ditzakegu informazioari tratamendu ezberdina ematen badiogu, hau da, informazioak duen garrantziaren arabera.

Binaka, aztertu Pou anaien erreskate lanari buruzko kronikaren zatitxoa. Azpimarratu esaldi bakoitzeko informaziorik garrantzitsuena eta erabaki non kokatu beharko litzatekeen idatzizko testu batean.

Pou Anaiak Erreskate Lanetan <http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/country/null/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=290177>

... Azkenean, denen artean lortu zuten hiru frantziarrek onik erreskatatzea.

Hura bai hura garaipena!

#### **Musika**

Zapore mingotsa gerorako gertakariak utzi diete egia esan. Asteazkenean, Rio

Blanco kanpamenduan hartu zuten atsedean, eta ostegunean, joan zeneko ostegunean, erabaki zuten Paso Superiorrera igotzea. Hurrengo egunerako azken ahaleginaren itxaropena gordeta,



nekeak jota, erreskate jardunagatik eta eguraldi iragarpen txarrekin, baina hala ere gora. Osteguna zen eguraldi oneko eguna, hainbat eskalataileek ondo probestu zuten gailurrera iristeko.

Hainbat horien artean, asko ziren aurreko egunean erreskatean parte hartzeari uko egin ziotenak .

**Musika**

Bada, gora igo ziren, Eneko eta Iker bai, baina alperrik. Ostiralean, eguraldiak berriro okerrera, eta hartatik, amore eman behar...

Ba al dago idatzizko testu arruntetan agertzen ez den beste ezaugarririk?

**AHOZKO TESTUEN EZAUGARRIAK**

- 1. Esaldiaren ordena aldatuta: garrantzizko informazioa atzerago jartzen da
- 2. ...
- 3. ...
- 4. ...

Ahozko kontaketa ekintzak dira nagusi, esaldi laburrak eta deskribapen gutxi egotea komeni da, ekintzak jarraitzeko beharrezkoak direnak soilik

**6. jarduera. Kronika hautatu eta saioa planifikatzen**

Emanaldia prestatzeko ordua da. Hiruko taldean bilduko zarete eta egunkarian bilatuko duzue kronika.

Dena den, guk sarean, HABE erakundeak Ikasbil.net web gunean dituen kroniken hautaketa egin dugu. Unitatearen bukaeran jarri dizuegu. Aukerarik izanez gero, informatikara gelara joan eta haietako bat hautatu.

Kronika hautatu ondoren, txantilo hori bete

**Gure kronika:** .....

**Kronikaren egitura:**

**kokapena**.....

**gertatutakoa:** .....

.....

.....

.....

.....

.....

bukaera.....

Erabiliko ditugun baliabideak hauexek dira:

Musika erabiliko dugu?. Noiz?.....

## 7. jarduera. Praktikatzen

Praktikatzeke, honako prozedura hau jarraitu:

| IRRATI-KRONIKA EKOIZTEKO PROZEDURA   |
|--|
| <p><input type="checkbox"/> Kronika <b>hautatu</b>.</p> <p><input type="checkbox"/> Saioa <b>planifikatu</b>: hiru taldekideen eginkizunak argitu (<b>aurkezlea eta kronikariak</b>).</p> <p><input type="checkbox"/> Kronika eta kronikarien aurkezpena <b>prestatu</b>.</p> <p><input type="checkbox"/> Kronika idatzia ahozkorako <b>egituratu</b>, hau da, nola esan <b>prestatu</b>: praktikatu elkarketa fonetikoak, intonazioa, pausaldiak eta abiadura.</p> <p><input type="checkbox"/> Bakoitzak kontatuko duen atala <b>barneratu</b>. Nahiz eta aukera izango duzuen irakurtzeko, askoz sinesgarriagoa izango da oinarrizkoa gogoratu eta entzulea aurrean izango bazenute legez aritzen bazarete.</p> <p><input type="checkbox"/> <b>Kontatu</b>: denek entzuteko moduko tonuan mintzatu eta hitz egin patxadaz, azkarregi arituz gero entzuleek ez baitute ezer jasoko.</p> |

Hasi praktikatzen! Lehenengo, talde barruan, eta gero, beste talde baten aurrean aritu.

Beste taldeko kideek kronika-emanaldia ebaluatzeko txantiloia erabiliko dute (9. Jardueran) zuen ekitaldia aztertzeko. Txarto egin duzuen hobetzeko iradokizunak ere proposatuko dituzte. Ondoren, zuek beste talde baten lanari buruzko iritzia emango duzue..

| IKASKIDEEN IRADOKIZUNAK |
|-------------------------|
|                         |

### 8. jarduera. Entzuleentzako grabatzen

Irrati-kronika grabatzeko momentua da. Aukera izanez gero, Audacity <http://audacity.sourceforge.net/> programa erabil dezakezue grabaketa egiteko.



Hala ere, MP3 edo MP4 tresnak era erabil ditzakezue, grabatu eta ordenagailuan gorde

### 9. jarduera. Egindakoa entzun eta ebaluatzen

Jarduera honetan, grabatu dituzuen kronikak entzungo dituzue arretaz. Helburua egindako lanaren emaitza ebaluatzea da.

Hobetu duzue ahoskera? Lehen baino esatari hobeak zarete?... Ebaluatzeko bi txantiloio dituzue. Lehenengoaren bidez nor bere taldearen balorazioa egingo du eta bigarrenaren bidez taldekideen lana. Horretarako, 2. jardueran denen artean adostu dituzuen adierazleetan egokienak gehituko dituzue bigarren txantiloian eta horren arabera baloratuko duzue ikaskideen jarduna.

#### KRONIKA-EMANALDIA EBALUATZEKO TXANTILOIA

| TALDEA:  | BAI | EZ |
|--|-----|----|
| Esatariaren interpretazioa agertzen da.  |     |    |
| Hizkera bizia eta jatorra, ondo kohesionatuta: adizki egokiak, lexiko aberatsa, ikasitako esamoldeak |     |    |
| Diskurtsoa egoki lotuta: lokailuak, testu antolatzaileak ...   |     |    |
| Zuzentasunari lotutako akatsik? Aditzak, perpausak ...   |     |    |
| Ahozkorako ondo egokituta, jarraitzeko erraz.  |     |    |
| . . . .  |     |    |

#### TALDEKIDE BAKOITZAREN LANA

| ***2. Jarduerako adierazleak gehitu hemen)    | Izena..... | Izena..... | Izena..... |
|---|------------|------------|------------|
| Dramatizazioa, tonu aldaketak behar direnean. |            |            |            |
| Kontaketa barneratuta, ez zuzenean irakurria. |            |            |            |
| Elkarketa fonetiko egokiak egin ditu.         |            |            |            |

|    |  |  |  |
|----|--|--|--|
| 1. |  |  |  |
| 2. |  |  |  |
| 3. |  |  |  |
| 4. |  |  |  |
| 5. |  |  |  |
| 6. |  |  |  |
| 7. |  |  |  |

**ERASKINA**

|   |  |
|---|--|
| <p><i>ERANSKINA. KRONIKAK</i><br/>(HABE. IKASBIL materialak. 2. Maila. EEMBren arabera B2)</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. A ze ezkontza!</li> <li>2. Nekearen kronika<sup>1</sup></li> <li>3. Bidaia kronika: Nairobitarra</li> <li>4. Western Basque Festival 1959</li> <li>5. Riomundo</li> <li>6. Mamuaren pare?</li> <li>7. Zerutik infernura, 48 orduan</li> <li>8. Linfoma baten kronika</li> <li>9. Kurdistan, ilargi erkiko gaua</li> <li>10. Amaia Etxezarreta: "Teknikoki oso komunikabide konplexua da telebista"</li> <li>11. Pou anaiak erreskate lanetan</li> <li>12. Portua bete ezintasun</li> <li>13. XVII. mendeko atentatu baten kronika (2)</li> <li>14. XVII. mendeko atentatu baten kronika (1)</li> <li>15. Gurrpil gaineko hitzak</li> <li>16. Gernika 1937-04-26</li> <li>17. Hitzeko argazkiak</li> <li>18. Kronika: teoria eta praktika</li> <li>19. Abiadura Handiko Urte baten kronika</li> <li>20. Botiken gazi-gofoak (hiesa)</li> <li>21. Eulia buruz behera, ekaitza</li> <li>22. Lurrikara Nafarroan</li> <li>23. Europako talderik onena santa eskean</li> <li>24. Noingo Gatazka</li> <li>25. Diaspora baten kronika</li> <li>26. Jaio aurreko diagnostia: bizitza iragarritako baten kronika</li> <li>27. UNESCO 1946-1991: egiteko handi baten kronika</li> <li>28. Ifernu eta esklabutatik ihesi. Kronika (Jon Zabaleta)</li> <li>29. Egiteko handi baten kronika</li> <li>30. Ifernu eta esklabutatik ihesi. Kronika. (Jon Zabaleta)</li> <li>31. Nikotinen kronikak</li> <li>32. Ifernu eta esklabutatik ihesi. Kronika</li> <li>33. Zorioneko Dragoia</li> <li>34. Urtebete minbiziarekin</li> <li>35. Xoxomikote</li> <li>36. Zer iruditzen zaizue?</li> <li>37. Txat woman</li> <li>38.</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>39.23 euro eta nortasuna</li> <li>40. 3.000 euro</li> <li>41. Adi belatzari!</li> <li>42. Apustu bitxiak oraindik ere egiten dira bakan batzuk</li> <li>43. Arraun istorioak</li> <li>44. Basajaun, basoen zaindaria</li> <li>45. Bihotz kontuak</li> <li>46. Bikote bila</li> <li>47. Eboluzioa eta gizakia</li> <li>48. Elezahar bat</li> <li>49. Emea naiz</li> <li>50. Erosle kaskarra</li> <li>51. Etxebizitza 'mobbing'-a</li> <li>52. Ez zidan deitu</li> <li>53. Gaizkile baten ibilerak</li> <li>54. Giggy</li> <li>55. Gorputz arrotz batean atzemanda</li> <li>56. Gurasorik gabeko oporrak</li> <li>57. Hacker gazteak ixkin egin dio espetxeari</li> <li>58. Hiltzailea ez da herrikoa</li> <li>59. Hiroshima eta Nagasaki</li> <li>60. Hondartzako iratxoak</li> <li>61. Ibaiaren kondaira</li> <li>62. Igoailua ez da leku txarra erabakiak hartzeko</li> <li>63. Ijitoak eta buhameak</li> <li>64. Iksitakoa ahaztu</li> <li>65. Interneten ligatzeko arriskuak</li> <li>66. Iruñea baino zaharragoa</li> <li>67. Joaredantza</li> <li>68. Lagun bati gertatutako laburmetraia egiazkoa</li> <li>69. Liburuak eta euria</li> <li>70. Maitasun istorioak</li> <li>71. Neska ala mutila? Sexua aukeran</li> <li>72. Neska izatera behartuta</li> <li>73. Ondareak babesten</li> <li>74. Salam Alaikum</li> <li>75. Tirania txikiak</li> <li>76. Tortikolisa</li> <li>77. Tratu txarrak</li> <li>78. Turkiarren inbasioa Hondarribian</li> </ol> |
|---|--|